



IRAKURTZEKO KONPETENTZIA INDARTZEKO PROGRAMA

Hezkuntza Saila



2024. EKO URRIA



Aurkibidea

1. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	2
2. PROGRAMAREN HELBURUAK.....	5
3. HARTZAILEAK.....	7
4. EGIKARITZEKO EPEAK	7
5. PROGRAMAREN JARDUKETAK eta NEURRIAK.....	8
LEHENENGO JARDUKETA. Batzorde tekniko bat sortzea.	8
BIGARREN JARDUKETA. Aholkulari- edo kolaboratzaile-taldeak sortzea.	9
HIRUGARREN JARDUKETA. Hezkuntza-baliabideak prestatzea.	9
LAUGARREN JARDUKETA: Irakurketa-idazketa prozesuaren metodologiei eta euskarri ezberdinetan konpetentzia bidez irakurtzen ikasteko estrategiei buruzko prestakuntza.	10
BOSGARREN JARDUKETA: Ikastetxeei haien irakurketa estrategia garatzen laguntzea.	11
SEIGARREN JARDUKETA: Hezkuntza-komplexutasuna duten ikastetxeetan irakurtzeko konpetentzia hobetzea.	11
ZAZPIGARREN JARDUKETA: Irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-laguntzako neurriak.	12
6. HEZKUNTZA SAILAREN ETA IKASTETXEEN KONPROMISOAK.....	14
7. PROGRAMAZIOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.	15
1. Hasierako plangintza	16
2. Garapena eta etengabeko jarraipena	16
3. Kontu ematea eta amaierako ebaluazioa	16
4. Kanpoko ebaluazioa	16
I. eranskina: Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programa ebaluatzeko inpaktu-adierazleak eta ebidentziak.....	17
II. eranskina: Jarduketan eta horien neurrien kronograma.	20
III. eranskina: Programaren helburuen, jarduketan eta jarraipen-adierazleen arteko lotura	25
IV. Eranskina: Glosarioa	32



1. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Europar Batasunaren jarraibideek nabarmentzen dute **funsezko kompetentziak** eskuratzea ezinbesteko faktorea dela pertsonen garapen pertsonal, sozial eta profesionalerako, aukera ematen baitie herritar aktibo eta konprometitu gisa mundu globalizatuan integratzeko.

[Europar Batasuneko Kontseiluaren 2021/C/66/01 Ebazpenean](#) hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan Europako lankidetzarako esparru estrategikoa ezartzen da, eta helburua da [Europako Hezkuntza Esparrua \(2021-2023\)](#) sortzea. Datorren hamarkadarako lehentasun estrategikoko gisa kokatzen da hezkuntzan eta prestakuntzan ikasle guztientzat kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta hobetzea. Europar Batasunaren arabera, hezkuntzan eta prestakuntzan kalitatearen ikuspegia txertatuta, **funsezko kompetentziak menderatzea** (oinarrizko trebetasunak barne) ezinbesteko oinarria da etorkizunean arrakasta izateko, kualifikazio eta motibazio handiko irakasleen eta hezkuntza-profesionalen laguntzaz. Halaber, funsezkotzat ditu **hezkuntzan eta prestakuntzan genero-arrakalak murrizteko beharra** eta ekitatea eta inklusioa sustatzea, ikasle guztientzat onuragarri izango den hezkuntza-sistema lortzeko.

Europar Batasunak ezarritako adierazle baten arabera, **irakurmenean, matematiketan eta zientzietan** errendimendu baxua duten 15 urteko ikasleen ehunekoak **% 15era murriztu** nahi da **2030 urterako**.

Ildo horretatik, EAEko curriculumaren garapenek ikasleen kompetentziak garatzea dute helburu. **Bi kompetentzia mota** definitzen dira curriculumetan: **funsezko kompetentziak**, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo amaierako irteera-profilak eratzen dituztenak; eta **kompetentzia espezifikoak**, curriculumari funtzionaltasuna ematen diotenak.

Funtsezko zortzi kompetentzien artean **hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia** dago; hau da, ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardutea hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuta, bat eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Kompetentzia horren **Lehen Hezkuntzako deskribatzaile operatiboetako batek (bigarren deskribatzaileak)** dioenez, etapa amaitzean, *pertsona-, gizarte- eta hezkuntza-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testu errazak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu ikasleak, euskaraz zein gaztelaniaz, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko*. **DBHri dagokion deskribatzailea** hau da: ikasleak, oinarrizko hezkuntzaren amaieran, *pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko*.

Irakurtzeko kompetentzia Haur Hezkuntzako etapetako ([75/2023 Dekretua](#)) eta Oinarrizko Hezkuntzako ([77/2023 Dekretua](#), Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza barne hartzen dituenak)



curriculum **ezartzen duten dekretuetan** jorratzen da, baina ez soilik oinarrizko hezkuntza amaitzean ikasleen irteera-profilaren deskribatzaile operatiboetan; baita hezkuntza-etapa bakoitzeko arlo eta ikasgaien konpetentzia espezifiko, oinarrizko jakintza eta ebaluazio-irizpidetan ere.

Ilido horretatik, Hezkuntza Sailak [EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMARAKO IRAKURKETA ESTRATEGIA. Irakurle konpetenteak lortze bidean 2024-2027](#) txostena argitaratu du. Irakurketa estrategiaren arrazoia da ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea, helburu argi eta zehatz batetik abiatuta: irakurle onak prestatzea, jakitun izanik ikaslearen irakurtzeko konpetentzia garatzeko, jarduera koordinatua eta behar bezala programatua behar dela.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren baitan, ikastetxeko irakurketa estrategiak funtsezko ardatzetako bat behar du izan. Ikastetxeak ondo zehaztutako programazio bat behar du, curriculum-arlo guztietatik irakurketaren tratamenduari aurre egingo diona, ikasleei irakurketaren oinarrizko prestakuntza bermatuko diona eta etorkizuneko garapenaren oinarriak irakurle trebe gisa jarriko dituen.

Ikastetxearen irakurketa estrategiak ondorengo helburuak lortu behar ditu:

- a) Ikasle guztien irakurtzeko konpetentzia hobetzea.
- b) Ikasleek norberaren gozamenerako elementu gisa irakurtzeko duten interesa piztu, areagotu eta sendotzea.
- c) Curriculumaren arlo, jakintzagai eta eremu guztietatik estrategiak inplementatu eta indartzea ikastetxean, ikasleak beregana ditzan irakurmeneko eta irakurketa-komunikaziorako trebetasunak, hala gainerako konpetentziak garatzen laguntzeko.
- d) Ikasleek estrategiak eta teknikak ikastea, tipologia askotariko testuak irakurtzeko (literatura aniztasunaren sustapena eta sorkuntza), interpretatzeko, eta informazio garrantzitsua bereizteko hainbat euskarritan.
- e) Ikastetxeko liburutegiak benetako baliabide-zentro bihurtzea, euskarri desberdinetan, ikaskuntzarako eta irakurketaz gozatzeko.
- f) Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzea irakurtzeko ohitura eta zaletasunaren mesedetan.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Sailburuordetza **hiru proiektu** inplementatzen ari da, ikastetxeei beren irakurketa estrategia definitzen eta abiarazten laguntzeko.

1. proiektua: Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) eta Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua (AGNH) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku hartzeko prozedura. Protokoloaren xedea da Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan dislexia, disgrafia eta Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua (AGNH) bezalako zailtasunak identifikatzea eta kasu horiei goiz ekitea. Helburua da esku-hartze pedagogikoa erraztuko duen tresna bat eskaintzea, ikasle horien berriazko beharretara egokituz eta horien irakurketa eta errendimendu akademikoa hobetuz.

2. proiektua: Irakurketa Trebetasunak neurtzeko tresna (ITT) Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) diseinatutako tresna hau Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleen irakurtzeko



errendimendua ebaluatzeko erabiltzen da. Neurketa-tresna honek bi zati ditu: alde batetik, deskodetzeko edo ozen irakurtzeko prozesua neurtzen du. Deskodetzea edo ozen irakurtzea osatzen duten prozesuak hauek dira: irakurketaren zehaztasuna, intonazioa eta etenaldiak, abiadura eta irakurtzeko modua. Bestalde, irakurmena hiru alderditan neurtzen du: espezifikoa, globala eta inferentziala. Emaitzen bidez irakurketaren garapenaren ikuspegi zehatza lortzen da, norbanakoaren, ikasgelaren eta mailaren arabera, eta ikastetxeari laguntzen dio ikasleen irakurtzeko kompetentzia hobetzeko beharrezko neurriak planifikatzen eta hobetzen.

3. proiektua: e-irakurzaletasuna. Programa honen bidez, irakurzaletasuna plataforma baten bidez (Elibrum bidez) sustatzen da. Plataformaren helburua da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako ikasleen irakurketa ludikoa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bultzatzea. Irakurtzeko ohitura sustatzeaz gain, irakurleen komunitatea eratzea du helburu plataformak eta, horretarako, jolaserako elementuak erabiltzen ditu, autonomia eta gozamina bezalako balioak sustatuta.

Era berean, beharrezkoa da **ekitate- eta kalitate-printzipioak** kontuan hartzea. **EAEko PISA 2022 Txostenaren** arabera, genero-arrakala dago irakurtzeko errendimenduari dagokionez: neskek nabarmen gehiago irakurtzen dute (482) mutilek baino (451).

Programa proposatzeko, kontuan hartu dira ikasleen **irakurtzeko errendimenduaren adierazleak**, hala nola **hainbat ebaluazio diagnostikoren** emaitzak, baita **PISA 2022 Txostena** ere:

- **Euskaraz irakurtzeko Konpetentziaren kasuan, Lehen Hezkuntzan** tarteko etapako eroldaren araberako ebaluazio diagnostikoen datuek (ED19: 253 puntu, eta ED23: 254 puntu) eta etapa horren amaierako laginen araberako ebaluazioek (ED22: 257 eta ED24: 249 puntu) **nahiko errendimendu-maila egonkorra adierazten dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) kasuan, emaitzak ere egonkorrak badira ere, tarteko etapako eroldaren araberako ebaluazio diagnostikoen (ED19: 240 puntu eta ED23: 248 puntu) eta etapa horren amaierako laginen araberako ebaluazioek (ED22: 256 puntu eta ED24: 257 puntu) adierazten dute DBHko 2. mailan lortutako emaitzak ez direla hasierako batez besteko puntuaziora (250 puntura) heltzen.**
- **Gaztelaniaz irakurtzeko konpetentziaren kasuan, Lehen Hezkuntzan** tarteko etapako eroldaren araberako ebaluazio diagnostikoen datuek (ED19: 249 puntu eta ED23: 242 puntu) eta etapa horren amaierako laginen araberako ebaluazioek (ED22: 258 eta ED24: 243 puntu) **errendimenduak behera egin duela adierazten dute. DBHren kasuan, beherakada hori tarteko etapako ebaluazio diagnostikoetan baino ez da nabari** (ED19: 240 puntu eta ED23: 248 puntu), etapa amaierako ebaluazio diagnostikoetan errendimenduak gora egiten baitu (ED22: 253 puntu eta ED24: 258 puntu).
- **PISA 2022ren** datuen arabera, kalkulatzen da Euskadin irakurtzeko errendimendua 466 puntukoa dela, ELGAko batez bestekoaren (476) eta EBko guztizkoaren (475) azpitik.

Testuinguru-esparru horretatik abiatuta, irakurtzeko konpetentzia indartzeko programa hau helburu eta jarduera zehatz batzuetan egituratzen da, hezkuntza-etapa guztietan euskal ikasleen irakurketa-trebetasunak hobetzeko diseinaturik daudenak. Jarduera horiek irakurketaren hobekuntzan eragiten duten alderdiei modu integral eta egituratuan heltzeko diseinatu dira, hezkuntza-eragile guztiak eta



ikasleak lankidetzaren prozesu jarraitu batean inplikaturik daudela ziurtatuz. Ondoren, programaren ardatza osatzen duten jarduerak zehatzak garatuko dira, talde tekniko espezializatuak sortzeko hasi eta tresna eta baliabide didaktikoak inplementatzera, betiere ikasle guztientzat eskola-berdintasuna, -kalitatea eta -arrakasta sustatzeko helburuarekin.

[↑Aurkibidea](#)

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Helburu orokorra da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko **konpetentzia-maila** nabarmen **hobetzea** eta, horretarako, arreta berezia eskaintzea **ikaskuntzaren pertsonalizazioari** eta **errendimendu-arrakalak murrizteari**.

Jarraian zehazten diren **helburu espezifikoak ikuspegi integralaren bidez** diseinatu dira, ikaskuntzaren pertsonalizaziotik hasi eta hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzaren aktiboraino, familia barne. Irakasleen etengabeko prestakuntzaren bidez, ikastetxeetan irakurketa-estrategiak modu eraginkorren eta sistematikoki inplementatzearen bidez eta errendimendu-arrakalak murriztearen bidez, programak ikasleen irakurtzeko konpetentzia nabarmen hobetzea eta denboran zehar irautea ziurtatu nahi du, hala ikasleen arrakasta akademikoa eta pertsonala ingurune inklusibo eta ekitatiboan sustatzeko.

Helburu espezifikoak eta dagozkien inpaktu-adierazleak hauek dira:

1. helburu espezifikoa: Irakasleak eta aholkulariak prestatzea.

Irakasleak eta laguntza-zerbitzuetako aholkulariak konpetentzia bidezko irakurketa-irakaskuntzako eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako metodologietan etengabe prestatzea, tresna teknologikoekin lagunduta.

Inpaktu-adierazleak:

- Prestakuntzara deitutako profesionalen artean formazioa burutzen dutenen ehunekoa.
- Jasotako prestakuntzaren ostean, ikasgelan ikusitako praktika pedagogikoen aldaketak.

2. helburu espezifikoa: Ikastetxeetan irakurketa estrategia garatzea eta indartzea eta, horretarako, eraginkortasunez eta ikastetxe bakoitzaren beharrezko arabera inplementatzen dela ziurtatzea.

Irakurketa estrategia modu sistematizatuan eta ikastetxearen testuinguruaren arabera garatzea, ikasleen beharrezkoak egokituta.

Inpaktu-adierazleak:

- Irakurketa estrategia inplementatzen ari diren ikastetxeen ehunekoa.
- Ikastetxeen autoebaluazioaren emaitzak, strategiaren inplementazioaren inpaktua oinarri hartuta.



3. helburu espezifikoa: Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan irakurketaren praktika egunero sistematizatzea.

Irakurketa modu sistematikoan integratzea Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo, jakintzagai edo eremu guztietan eta maila guztietako eskola-orduetan, eta hainbat euskarritan. Eskola-liburutegiak baliabide zentro dinamiko gisa erabiltzea sustatzea.

Inpaktu-adierazleak:

- Irakurketaren praktika curriculumeko arlo, jakintzagai edo eremu guztietan txertatzen duten ikastetxeen ehunekoak.
- Irakurketa praktika egunero sistematizatu duten ikastetxeen ehunekoak.

4. helburu espezifikoa: Ikasleei arreta pertsonalizatua ematea

Irakurtzen ikasteko estrategia espezifikoak garatzea, ikasleen eta ikastetxeen beharrezan erantzungo dietenak, etengabeko ebaluazio pertsonalizatuetan oinarrituta.

Inpaktu-adierazleak:

- Irakurtzeko konpetentzian errendimendua hobetzen duten ikasleen ehunekoak, bai barneko ebaluazioetan, bai kanpoko ebaluazioetan.
- Errendimendu baxuko ikasleen ehunekoak murriztea.
- Irakurtzeko konpetentzian maila altuetara iristen diren ikasleen ehunekoak handitzea.

5. helburu espezifikoa: Genero-arrakala murriztea.

Irakurtzeko errendimenduan genero-ekitatea sustatzen duten ekintza pedagogikoak inplementatzea ikastetxean.

Inpaktu-adierazleak:

- Irakurtzeko konpetentziari dagozkien ebaluazio estandarizatuetan mutilen eta nesken arteko puntuazio-desberdintasuna murriztea.
- Neska-mutilen arteko desoreka murriztea irakurketarekin lotutako jardueretan parte hartzeari dagokionez.

6. helburu espezifikoa: Irakurzaletasuna bultzatzen duten eskolaz kanpoko jarduerak sustatzea.

Irakurzaletasuna sustatzeko eskolaz kanpoko jarduerak bultzatzea, familia-elkarteekin eta inguruneko bestelako gizarte- eta hezkuntza-eragileekin batera.

Inpaktu-adierazleak:

- Irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten ikastetxeen ehunekoak.



- Irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan ikasleen parte-hartzea areagotzea, hala nola irakurketa-klubetan, ikastetxeko liburutegian...

7. helburu espezifikoak: Familiekin lankidetzaren aktiboa.

Ikasleek etxean irakurtzeko prozesuan familien parte-hartzea sustatzea.

Inpaktu-adierazleak:

- Familiei etxean irakurtzen laguntzarekin lotutako jarduerak eskaintzen dizkieten ikastetxeen ehunekoa.
- Etxean irakurtzarekin lotutako jardueretan familien parte-hartzea handitzea.
- Familiaren eta ikastetxearen arteko informazio-trukea, ikasleek etxean irakurtzean egindako aurrerapenei buruzkoa.

Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programaren jarraipen orokorra eta ebaluazio eraginkorra errazteko, [1. eranskina](#) osatu da. Eranskin horretan, inpaktu-adierazleak, espero diren balio optimoak eta helburu espezifiko bakoitzaren arrakasta neurtzeko beharrezkoak diren ebidentziak zehazten dira. Eranskin horrek erreferentzia argia ematen du programaren aurrerapena ebaluatzeko, eta, horrez gain, ikastetxeek irakurtzeko konpetentzia hobetzeko beren estrategiak orientatzeko eta indartzeko gida gisa ere erabili ahal izango dute.

[↑Aurkibidea](#)

3. HARTZAILEAK

Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

[↑Aurkibidea](#)

4. EGIKARITZEKO EPEAK

Irakurtzeko konpetentzia indartzeko programa lau ikasturtetan zehar egingo da: 2024-2025 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtean amaituko da. Bi fasetan inplementatuko da:

- ⇒ **Lehenengo fasea (2024-2026):** 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetan, programaren jarduketa nagusiak hasi eta finkatuko dira. Fase horren amaieran, inpaktuaren ebaluazio integrala egingo da, aurrerapenak neurtzeko eta hobetzeko arloak detektatzeko. Ebaluazio horren emaitzak oinarri hartuta, hurrengo fasearen inplementazioa doitu eta optimizatuko da.
- ⇒ **Bigarren fasea (2026-2028):** 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan egingo da. Programa inplementatzen jarraitzeaz gain, lehenengo faseko ebaluazioan identifikatutako hobekuntzak txertatuko dira. Etapa horretan, ikaskuntza eta praktikak finkatuko dira, programaren iraunkortasuna eta epe luzearako arrakasta bermatzeko.

[↑Aurkibidea](#)



5. PROGRAMAREN JARDUKETAK eta NEURRIAK

Programa **zazpi jarduketatan** egituratzen da. Era berean, 2. atalean adierazitako helburuak lortzeko, jarraian laburbiltzen diren hainbat **neurri** barne hartzen ditu jarduketa bakoitzak:

LEHENENGO JARDUKETA. Batzorde tekniko bat sortzea.

Batzorde teknikoa funtsezkoa izango da Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programa eta Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa estrategia diseinatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko. Hauek izango dira haren **eginkizun** nagusiak:

a) Hasierako diagnostikoa egitea eta hobetzeko lehentasun-arloak ezartzea.

Euskadin irakurtzeko konpetentziari buruzko txosten diagnostiko bat prestatzea, erreferentziazat hartuta nazioarteko ebaluazioen emaitzak eta irakurketan errendimendu handia duten herrialdeen jardunbide onenak, bai eta emaitza onak dituzten ikastetxeen esperientziak ere. Azterketa konparatibo horrek ikasleen errendimenduan gehien eragiten duten faktoreak identifikatuko ditu, eta diagnostiko horretatik abiatuta, errefortzuak behar dituzten lehentasuneko arloak hautatuko dira, ikasleengan atzemandako ohiko zailtasunen arabera.

b) Aurrerapena monitorizatzea eta egokitutako estrategia pedagogikoak garatzea.

Programaren garapena etengabe ikuskatzea. Horrez gain, estrategia pedagogiko eraginkorrak diseinatzea, ikasleen ikaskuntza-modalitatera eta beharrianetara egokituta, hala ikuspegi inklusibo eta pertsonalizatua bermatzeko.

c) Programaren proposamen pedagogikoak diseinatzea.

Programaren barruan landu beharreko ikaskuntza-helburuak, funtsezko konpetentziak eta trebetasunak zehaztea, hezkuntza-maila ezberdinetako ikasleen irakurtzeko errendimendua hobetzeko.

d) Prestakuntza-planak garatu eta euren ezarpena koordinatu

Prestakuntza-plan espezifikoak garatzea eta ikastetxeetan ezartzen direla bermatzea. Prestakuntza horrek hainbat alderdi barne hartu behar ditu, hala nola hizkuntzen didaktika, teknologia berrien erabilera eta ekitatea sustatzen duten ikuspegi pedagogikoak, genero-arrakala murriztea adibidez.

e) Hezkuntza-baliabide irekiak sortzen laguntzea.

Irakasleei laguntzeko hezkuntza-materialak egiten eta biltzen parte hartzea, eta hezkuntza-komunitate osoaren eskura jartzea Irakurgunea.eus plataforman.

f) Programaren jarraipena eta ebaluazioa ikuskatzea.

Programaren inpaktua neurtzeko etengabeko ebaluazio-sistema bat ezartzea, datu garrantzitsuak bilduta eta emaitzak aztertuta. Informazio hori abiapuntu, programaren inplementazioa eta eraginkortasuna hobetzeko doikuntzak proposatzea, haren iraunkortasuna eta moldagarritasuna denboran zehar ziurtatuta.

[↑Aurkibidea](#)



BIGARREN JARDUKETA. Aholkulari- edo kolaboratzaile-taldeak sortzea.

Aholkulari- edo kolaboratzaile-talde **espezializatuak sortuko dira**, eta horien **egitekoa izango da ikastetxeei beren irakurketa estrategia diseinatzen, inplementatzen eta ebaluatzen laguntzea**. Ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko jarraibideak eta gomendioak emango dituzte talde horiek, hizkuntzen ikuspegi integrala eta integratua kontuan hartuta.

Aholkulari-taldeen **eginkizunak** honako hauek izango dira:

- **Etengabeko prestakuntza:** irakurketa-idazketako eta ikaskuntza konpetentzialeko metodologietan prestakuntza jasotzea, eta ezagutza hori ikastetxeetako irakasleei ematea.
- **Ikastetxeei aholku ematea:** ikastetxeei beren Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programa eta irakurketa estrategia osatzen, inplementatzen eta ebaluatzen laguntzea.
- **Laguntza teknikoa:** irakurtzeko konpetentzia garatzeko teknologia eta baliabide digitalak erabiltzen laguntzea.
- **Hezkuntza-baliabideak sortzea eta kuratzea:** Irakasleei eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuei (ikasleak, familiak...) laguntzeko materialak eta baliabideak eskuragarri daudela bermatzea, plataforma digitalen bidez ([Irakurgunea](#), adibidez).
- **Ikastetxe-arteko koordinazioa:** ikastetxeen artean jardunbide egokiak elkartrukatzea eta sarean lan egitea sustatzea, irakurketa-estrategiak hobetu ditzaten.

[↑Aurkibidea](#)

HIRUGARREN JARDUKETA. Hezkuntza-baliabideak prestatzea.

Ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko irakasleei laguntzeko hezkuntza-baliabideak prestatzea. Material hauek ikasleen ikasteko beharrian ezberdinei erantzuteko diseinatuko dira, eta hezkuntza-etapa guztiak barne hartuko dituzte.

Besteak beste, honako baliabide hauek izango dira:

- **Material didaktikoak:** hezkuntza-mailetan irakurketa konpetentzia garatzeko curriculumarekin bat datozen ikaskuntza-egoerak, proposamen didaktikoak, ariketak eta jarduerak, eta beharrian desberdinak dituzten ikasleei egokituta.
- **Tresna digitalak:** ikasgelan zein etxean irakurtzen ikasten laguntzen duten sareko aplikazio eta plataforma interaktiboak eta, horretarako, teknologia berritzaileen erabilera sustatzea.
- **Gida metodologikoak:** irakurtzen irakasteko ebidentzia zientifikoetan oinarritutako estrategiak eskaintzen dituzten dokumentu pedagogikoak, hezkuntza-jardunbide onenei arreta jarrita.
- **Ebaluazio-tresnak:** irakasleek ikasleen irakurtzeko konpetentzian egindako aurrerapena neurtzeko eta kontrolatzeko tresnak, emaitzen arabera irakaskuntza egokitzeko adierazle argiekin.



Baliabide horiek guztiak hezkuntza-komunitatearen eskura egongo dira [Irakurgunea](#) plataforman, eta irakasleek eta hezkuntzako gainerako profesionalek horiek kontsultatu eta erabiltzen lagunduko dute. Horrez gain, aldian-aldian eguneratuko dira, joera eta hezkuntza-beharrizan berriei erantzuten dietela ziurtatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

LAUGARREN JARDUKETA: Irakurketa-idazketa prozesuaren metodologiei eta euskarri ezberdinetan kompetentzia bidez irakurtzen ikasteko estrategiei buruzko prestakuntza.

Jarduketa honen helburua da irakasleei eta aholkulariei prestakuntza espezializatua ematea, **Irakurketa estrategiaren** funtsezko hiru ardatzei dagokienez: **Irakurtzen ikastea**, **Ikasteko irakurtzea** eta **Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna**.

Estrategiaren esparruan definitutako **irakurketaren estadioetan** ikasleek aurrera egiteko estrategia pedagogikoak erabiltzea izango du ardatz prestakuntzak. Estrategia horiek dira, besteak beste, **izendapenaren abiadura**, **kontzientzia fonologikoa eta fonetikoa** lehenengo urteetan, eta **irakurketa eraginkorra** eta **irakurmenaren estrategiak eta teknikak** maila altuagoetan.

Prestakuntza honako **ardatz** hauetan oinarrituta diseinatuko da:

1. A ardatza: Irakurtzen ikastea

Ardatz honetan prestatzean ikasleei beren lehen irakurtzeko trebetasunak garatzen irakasteko tresna metodologikoak eskainiko dira. Horrek barne hartzen ditu izendapenaren abiadura, **kontzientzia fonologikoa**, fonetikoa eta **irakurketaren jarioetasuna** sustatzeko estrategiak, irakurketaren lehen faseei ikasleen garapen ebolutiboarekin modu koherentean helduz.

2. B ardatza: Ikasteko irakurtzea

Irakurmen-estrategia eta **-teknika**ko prestakuntza jasoko dute irakasleek, eta, horren bidez, ikasleek irakurketa tresna gisa erabiliko dute curriculum-arlo, jakintzagai edo eremu guztiak ikasteko. **Hiztegia bereganatzeko** eta **testuak kritikoki aztertze**ko trebetasunak hobetzeko estrategiak ere erabiliko dira.

3. C ardatza: Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna

Prestakuntzak hezkuntza-maila guztietan **irakurtzeko ohitura** eta berezko motibazioa sustatuko dituen ingurune bat sortzeko jarduerak barne hartuko ditu. Ikasleak irakurketa ludikoan inplikarazteko eta aisialdiko jarduera gisa gozatzeko metodologiak irakatsiko dira, bai ikasgelan eta baita kanpoan irakurtzeko gozamenaren sustatuta.

Ikuspegi horren bidez, prestakuntzak esparru integral eta koherente bat eskainiko du, eta irakurketa-idazketako prozesuaren lehenengo etapak zein irakurketa ikasteko eta gozatzeko tresna gisa erabiltzea landuko ditu. Hala, ikasleek beren irakurtzeko garapenaren etapa bakoitzean behar dituzten kompetentziak bereganatzea bermatuko da.

[↑Aurkibidea](#)



BOSGARREN JARDUKETA: Ikastetxeei haien irakurketa estrategia garatzen laguntzea.

Laguntza-prozesua eskainiko zaie ikastetxeei beren irakurketa estrategia diseinatu eta abian jartzeko, berau ikastetxe bakoitzaren beharretara egokituta eta modu eraginkorrean inplementatzen dela bermatzeko. Laguntza horrek barne hartuko ditu orientabide pedagogikoa, emaitzen ebaluazioa eta metodologiak egokitzen laguntzea, ikuspegi integral eta pertsonalizatuaren bidez.

Laguntza horren barruan, funtsezko hiru **neurri** aurreikusi dira, Eusko Jaurlaritzaren Irakurketa estrategia horren jada ezarritako proiektuekin bat datozenak:

- **Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku hartzeko prozedura.**

Irakurtzeko kompetentziarekin lotutako ikasteko zailtasun espezifikoak goiz identifikatzeko sistema bat eskainiko die proiektu honek ikastetxeei. Prozedura horren bidez, eskolatzeko lehenengo urteetan dislexia edo bestelako ikaskuntza-nahasmenduak bezalako zailtasunak dituzten ikasleen alerta-seinaleak antzeman daitezke eta irakurketa-errendimendua hobetzeko esku-hartze pertsonalizatuak eskaini daitezke.

- **Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna (ITT).**

Ikasleen irakurketa-trebetasunak zehatz neurtzeko ebaluazio-tresna bat jarriko da ikastetxeen eskura. Tresna horren bidez, irakurtzeko kompetentzia-mailari buruzko datuak jasoko dira hainbat hezkuntza-etapatan eta, horrela, irakasleek haien irakaskuntza egokitu ahal izango dute, ikasleen beharrezkoen eta ebaluazioetan lortutako emaitzen arabera.

- **e-irakurzaletasuna.**

Proiektuaren helburua da irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna euskarri digitalen bidez bultzatzea, irakurketa formatu tradizionalak eta euskarri elektronikoetan sustatuta. Irakurketa digitalarekiko interesa sustatzeko baliabideak eta jarduerak barne hartuko ditu proiektuak, baita ikasleek ingurune digitalean modu autonomoan eta kritikoan irakurtzeko tresna teknologikoak eskaini ere.

[↑ Aurkibidea](#)

SEIGARREN JARDUKETA: Hezkuntza-komplexutasuna duten ikastetxeetan irakurtzeko kompetentzia hobetzea.

Jarduketa honen helburua da **Hezkuntza Konplexutasunaren Indize (HKI)** handia izan eta **Hezkuntza Berariaz Indartzeko Programan (HBIP)** eta **Eraldatzen** proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleen irakurtzeko kompetentzia hobetzea. Ikastetxe horiek HKIri eta, hala badagokio, HBIPri dagokien ordu-kreditu gehigarria dute eta, beraz, hezkuntza-errefortzurako irakasle gehiago izan ditzakete.

Jarduketa honen bidez, ikastetxeek ordu-kreditu hori estrategikoki erabil dezakete ikasleen irakurtzeko trebetasunak indartzeko, arreta pertsonalizatua eta eraginkorra bermatzeko neurri eta ikuspegi pedagogikoak erabilia.



Neurri horien artean, honako hauek inplementatuko dira:

- 1. Talde txikiak sortzea:** talde txikiak sortuko dira eskola-orduetan irakurketa indartzeko, eta, horri esker, irakurtzeko konpetentzian zailtasun handiagoak dituzten ikasleei arreta pertsonalizatuagoa eman eta haien bilakaera hurbilagoatik jarraitzeko aukera izango dute.
- 2. Ko-irakaskuntza ikasgelan:** ko-irakaskuntza sustatuko da ikastetxeetan, hau da, ikasgelan bi irakaslek elkarrekin lan egitea. Ikuspegi horren bidez, esku-hartze intentsiboagoa eta eraginkorragoa ahalbidetuko da, bi irakasle irakurtzeko jarduerak egiten eta ikasleen bilakaeraren jarraipena egiten lankidetzan aritu ahal izango baitira, eta, hala, beharizan guztiak modu inklusiboan erantzuten direla bermatuko da.
- 3. HBIP eta Eraldatzen programen esparruan esku hartzeko eta irakurketa indartzeko jarduketak:** programa horietan parte hartzen duten ikastetxeek hobetzeko ekintza espezifikoak diseinatu dituzte, irakurtzeko konpetentzia lehentasun gisa jarrita. Eraldatzen programaren kasuan, hezkuntza inklusiboaren eta aniztasunari erantzuna ematearen printzipioekin lerrotatuko dira, irakurtzeko errefortzua ikastetxearen Hobetzeko Plan Estrategikoarekin lotuta dagoela ziurtatuta, ekitatea eta ikasle guztien parte-hartze aktiboa sustatuta.

Neurri horiek **progresiboki** inplementatuko dira, ikastetxe bakoitzaren beharizan espezifikoak eta berezitasunak kontuan hartuta eta, horretarako, ikastetxe bakoitzak haren esku-hartzeak testuinguruaren arabera egokitze nahikoa laguntza jasotzen duela bermatuko da.

[↑ Aurkibidea](#)

ZAZPIGARREN JARDUKETA: Irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-laguntzako neurriak.

Jarduketa honen helburua da irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-laguntza eskaintzea, hala ikaskuntzak sendotu eta haien beharizanei modu eraginkorragoan erantzuteko. Konpetentzia hori sendotzea ezinbestekoa da, irakurmena modu progresibo eta metatuan eraikitzen den funtsezko trebetasuna baita. **Funtsezko hiru neurri** inplementatzea aurreikusi da, irakurtzeko konpetentziaren emaitzak hobetzeko asmoz. Pixkanaka egingo da hori, ikastetxeen berezitasunak kontuan hartuta:

1. Irakurtzeko zailtasunak dituzten Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzako hezkuntza-laguntza.

Neurri berria da eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei laguntza gehigarria ematean datza, ikasleen irakurtzen ikasteko prozesua funtsezko garapen-etapan baitago. Horrela, irakurtzen ikasteko prozesua sendotzea da asmoa, bestelako ezagutzak bereganatzeko funtsezko tresna baita.

Neurri hori inplementatzeak ikastetxeen funtzionamendua aldarazi dezakeenez, eta ikasturtea abian denez, pixkanaka inplementatzea aurreikusi da, eta eredia doitzeko plan pilotu baten bidez egingo da lehenik. Astean bost saio egingo dira eskola-orduetatik kanpo irakurketa hobetzeko, ezaugarri eta beharizanen arabera Hezkuntza Sailak hautatutako ikastetxeetan.



2. Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei laguntza (Bidelaguna Programa).

Hainbat dira **Bidelaguna programa (eskolaz kanpoko ordutegian) abian duten ikastetxeak. Programa hori bat dator** Hezkuntza Sailaren Irakurketa estrategiarekin eta Irakurtzeko kompetentzia hobetzeko programa honen helburuekin. Bidelagunaren helburua da, besteak beste, gizarte-desabantaila egoeran dauden ikasleen irakurtzeko kompetentzia hobetzea. 2024-2025 ikasturtean zehar hasiko da programa egokitzen, jarduera eta metodologiek berariaz txerta dezaten irakurtzeko trebetasunak garatzea. Eskola-arrakastaren indizeak hobetzea da azken xedea.

3. DBHko ikasleen hezkuntza-errefortzua eta irakurketa sustatzea (Hedatze proiektua).

Hedatze proiektua ere (Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen barne-antolaketan berritzea helburu duena) bat dator irakurtzeko kompetentzia hobetzearekin. Ikasle guztientzat bada ere, arreta berezia eskainiko zaie zailtasunak dituztenei, eta gradualki aldatuko da, irakurtzeko kompetentziak garatzen laguntzeko eta, aldi berean, irakurzaletasuna bultzatzeko.

Esparru horren baitan, **irakurtzeko zailtasunak dituzten DBHko ikasleei eskolaz kanpoko laguntza** espezifikoa eskainiko die programak, funtsezko kompetentzia honetan garapena sustatzeko jarduerak txertatuta. Horrez gain, **ikasle guztien irakurtzeko ohitura bultzatzeko ekintzak** barne hartuko ditu, honako ekimen hauen bidez:

- **Irakurtzeko ohitura sustatzea:** ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak, beraien intereseko irakurketak partekatze eta aztertze espazioen bidez.
- **Sormenezko irakurketa sustatzeko ekimenak:** irakurketa beste sormenezko diziplina batzuekin lotzen duten tailerrak, hala nola idazketa, artea eta teknologiak, irakurketaren bidez adierazpen pertsonala bultzatuta.
- **Ingurune digitalean irakurtzea:** irakurketa digitala sareko plataforma eta baliabideen bidez sustatzea, hala irakurketa-mota eta formatu modernoetarako sarbidea zabalduta.
- **Irakurketarekin eta literatura-kulturarekin lotutako ospakizunak:** liburu-azokak, egileekin topaketak eta literatura-lehiaketak antolatzea, irakurketa hezkuntza-kulturaren parte gisa balioan jarri eta ospatzen duen eskola-ingurune bat sortzeko.

Datorren ikasturtean, xehetasun handiagoz definituko dira Hedatze proiektuaren barruko estrategia espezifikokoak, irakurtzeko kompetentzia ikasleen garapen akademiko eta pertsonalaren funtsezko zati bat izango dela bermatzeko. Era berean, irakasleei prestakuntza gehigarria emango zaie estrategia berri horiek modu eraginkorrean inplementatu ahal izan ditzaten, laguntza pertsonalizatuan eta irakurzaletasuna sustatzean oinarrituta, etorkizunerako funtsezko arloa baita.

Pixkanaka inplementatuko dira neurriok, ikastetxeen beharrian eta berezitasunak kontuan hartuta. Bidelaguna eta Hedatze programak, dagoeneko ikastetxeetan abian daudenez, ikasturte honetatik aurrera lerrokatuko dira Irakurketa estrategiarekin. Programa osorik eta zehatzago datorren ikasturtetik aurrera definituko da.



[II. eranskinean](#) dator xehatuta jarduketa bakoitzari dagokion **kronograma**.

Programaren helburuen, proposatutako jardueren eta jarraipen-adierazleen artean ikuspegi orokorra eta koherentea izateko, [III. eranskina](#) sartu da: **Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programaren helburuen, jardueren eta adierazleen arteko lotura**. Eranskin honek elementu horietako bakoitzaren arteko interdependentzia modu egituratuan ikusteko aukera ematen du, programa inplementatzen den bitartean programa ebaluatzeko eta jarraipena egiteko gida bat eskainiz. Gainera, ikastetxeek erreferentzia gisa erabili ahal izango dute tresna hori, irakurtzeko konpetentzia hobetzeko dituzten estrategiak orientatzeko eta ebaluatzeko.

Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programan erabilitako terminoak eta kontzeptuak errazago ulertzeko, [IV. eranskina](#) sartu da: **Programaren terminoen glosarioa**. Glosario honen helburua erabilitako terminoen definizio argiak eta zehatzak ematea da, irakasleek eta programan parte hartzen duten gainerako eragileek zehaztasunez uler ditzaten landutako kontzeptuak eta horiek hezkuntza-testuinguruan duten aplikazioa.

[↑Aurkibidea](#)

6. HEZKUNTZA SAILAREN ETA IKASTETXEEN KONPROMISOAK.

Hauek dira **Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko Programa** behar bezala inplementatzeko alderdiek hartutako konpromisoak:

Hezkuntza Sailaren konpromisoak hauek dira:

- Programan laguntzeko eta haren jarraipena egiteko koordinazio-egitura sortzea.
- Irakasleek programa inplementatzen laguntzeko beharrezkoak diren hezkuntza- eta pedagogia-material eta-baliabideak ematea eta partekatzea ikastetxe guztiei.
- Ikastetxe bakoitzean programaren jarduketan jarraipena egitea, hezkuntza-arduradunekin eta-ikuskaritzarekin lankidetzan.
- Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko erreferentziatzeko talde teknikoa izendatzea, eta Hezkuntza Sailari jakinaraztea zeintzuk diren egindako ekintzak eta horien helburuak, hartzailak, espero den inpaktua, egikaritzeko modua, lurralde-banaketa, egikaritzeko epea eta aurreikusitako kostua.
- Batzorde teknikoarekin aldizkako bilerak egitea, programaren baitan adostutako gaiak jorratzeko.
- Programa garatzeko hasierako prestakuntza ematea eta, hala adostu bada, prestakuntza osagarria ematea.
- Ikasturte bakoitzaren amaieran programaren ebaluazio orokorra egitea, ISEI-IVEIrekin lankidetzan.
- Parte hartzen duten ikastetxeen arrakastazko esperientzietan oinarritutako jardunbide egokien gidak diseinatu eta eguneratzea.



- Programari buruzko informazioa irakurgunea.eus atarian ematea.

Ikastetxeen konpromisoak hauek dira:

- Programaren baitan eskainitako prestakuntza-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Ikastetxeko irakurketa estrategia garatu eta egikaritzea eta, beste antolaketa-plan eta -dokumentuetan txertatuta, sinergiak sortzea.
- Urtero batzordeari programaren helburuen lorpen-mailari buruzko informazioa helaraztea.
- Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezko datu guztiak ematea.
- **Programaren arduraduna izendatzea.** Honako hauek izango dira haren eginkizunak:
 - Programaren informazioa irakasle, ikasle eta familiei ematea, haien parte-hartzea eta lankidetzaren areagotzeko.
 - Dagokion neurrian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleak irakasle taldearekin batera identifikatzea.
 - Familien baimenak, konpromisoa eta inplikazioa kudeatzea eta irakasleen eta familien artean desadostasunak daudenean bitartekari-lanak egitea, irtenbide egokiak proposatuta.
 - Zuzendaritza-taldeari proposatzea programaren neurriak garatzeko egokiak diren ikastetxeko irakasleak, duten profilatik eta esperientziatik.
 - Irakurtzeko konpetentzia indartzeko eskolen eta jardueren egutegiari, ordutegiari eta lekuari buruzko informazioa ematea familiei, eta ikastetxearen web-orrian argitaratzea.
 - Irakasleekin batera, ikasleen beharrezkoak egokitutako jarduketaren plangintza egitea eta, hori amaitutakoan, dagokion txostena osatzea.
 - Diseinatutako prestakuntza-ekintzetan irakasleen eta familien parte-hartzea sustatzea.
 - Programan aurreikusitako jarduketak modu eraginkorrean egiten direla ziurtatzea.
 - Ikasleen bertaratzea eta parte-hartzea kontrolatzea, eta bertaratu ez edo parte hartzen ez duten kasuetan esku hartzea.
 - Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiten laguntzea, eskatutako dokumentazioa prestatuta.

[↑Aurkibidea](#)

7. PROGRAMAZIOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.

Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programaren **ebaluazioa eta jarraipena** etengabe eta sistematikoki egingo dira, modu eraginkorrean inplementatzen dela ziurtatzeko eta programa doitu eta hobetzeko erabakiak hartzen laguntzeko. Jarraipena honako **funtssezko elementu** hauen bidez egingo da:



1. Hasierako plangintza

Behin programa onartzen denean, **hasierako txostena** egingo da eta, bertan, jarduketa eta/edo neurri bakoitzean parte har dezaketen ikastetxeak identifikatuko dira. Ondoren, jarduerak egikaritzeko egutegia eta lortu beharreko helburuak zehaztuko dira. Txosten horretan jasoko dira ere esku hartuko duten aholkulariak.

Fase horretan, xehetasun handiagoz ezarriko dira [I. eranskinean](#) eta [III. eranskinean](#) jasotako **eragin- eta jarraipen-adierazleak**, jardueren aurrerapena neurtzeko erreferentzia gisa erabiliko direnak.

Plangintza horrek etengabe monitorizatzeko koordinazio-sistema bat barne hartuko du, bertan jaso dadin jarduketak doitzeko funtsezko informazioa.

2. Garapena eta etengabeko jarraipena

Hezkuntza Sailak **jarraipen-batzorde** bat eratuko du, programaren inplementazioa ikuskatzeko. Programa koordinatzeko arduradunek osatuko dute batzorde hori eta gutxienez sei hilean behin bilduko da, edo beharrezkoa dela irizten denean.

Hezkuntza Ikuskaritzak funtsezko eginkizuna izango du programaren jarraipenean; jarduketak ikastetxeetan behar bezala inplementatzen direla ikuskatuko du eta helburuak aurreikusi bezala betetzen direla egiaztatuko du. Ikuskaritzak aldizka bisitatuko ditu ikastetxeak, programaren garapenari buruzko informazioa zuzenean jasotzeko eta berau hobetzeko gomendioak emateko.

Ikasturtean zehar, diseinatutako neurriak doitu ahal izango dituzte ikastetxeek eta horiek ikasleen beharrezanetara eta hezkuntza-testuingurura egokitzen direla ziurtatuko dute. Aldaketa horiek urteroko txostenean jasoko dira.

3. Kontu ematea eta amaierako ebaluazioa

Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikastetxeek egin ohi duten **urteroko txostenean Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programaren** inguruko atal berezi bat jasoko da. Atal horretan azalduko dira jarduketan egikaritze-maila, lortutako emaitzak, egindako jarduketak eta ondorioak. Gainera, ebaluazio diagnostikoko proben emaitzak ere jasoko dira (Lehen Hezkuntzako 4. mailari eta DBHko 2. mailari dagozkionak), baita barne-ebaluazioak ere (ITT probak eta emaitza akademikoak).

Ikastetxeen txostenetan jasotako emaitza eta ondorioen bidez, baita programaren jarraipena egiteko Hezkuntza Ikuskaritzak jasotako datuen bidez ere, programa bere osotasunean ebaluatu ahal izango da, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearekin (ISEI-IVEI) lankidetzan, programaren inpaktu ebaluatzeko eta hurrengo inplementazio-ziklorako hobekuntzak proposatzeko.

4. Kanpoko ebaluazioa

Programaren **kanpoko ebaluazioa** egin ahalko da, hezkuntza-sisteman adituak direnek eta beste erakunde batzuek. Helburua izango da ikuspegi objektiboa eta gomendioak eskaintzea, epe luzera programa eraginkorragoa izateko.

[↑Aurkibidea](#)



I. eranskina: Irakurtzeko konpetentzia hobetzeko programa ebaluatzeko inpaktu-adierazleak eta ebidentziak.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	BALIO OPTIMOAK	EBIDENTZIAK
1. Irakasleak eta aholkulariak prestatzea	Prestakuntzara deitutako profesionalen artean formazioa burutzen dutenen ehunekoa.	Prestakuntzara deitutako profesionalen % 80a.	Prestakuntzetako parte-hartzeari eta asistentziari buruzko txostenak, parte-hartzaileen zerrendak.
	Jasotako prestakuntzaren ostean, ikasgelan ikusitako praktika pedagogikoen aldaketak.	Prestakuntzan parte hartzen duten irakasleen % 70ek aldaketak islatzen ditu praktikan.	Ikasgelan behaketak egitea, aplikatutako metodologia berriak egiaztatzeko zerrendekin, eta plangintza pedagogikoko dokumentuak aztertzea.
2. Ikastetxeetan irakurketa estrategia garatzea eta indartzea	Irakurketa estrategia inplementatzen ari diren ikastetxeen ehunekoa.	Lehen Hezkuntza eta/edo DBH ematen duten ikastetxeen % 100a	Dokumentatutako eta baliozkotutako ikastetxeen irakurketa-estrategia
	Ikastetxeen autoebaluazioaren emaitzak, strategiaren inplementazioaren inpaktua oinarri hartuta.	Ikastetxeen % 80k eragin positiboa du.	Ikastetxeen barne-autoebaluazioen emaitzak, jarraipen-txostenak eta kanpo-ebaluazioa.
3. Irakurketaren praktika egunero sistematizatzea.	Irakurketaren praktika curriculumeko arlo, jakintzagai edo eremu guztietan txertatzen duten ikastetxeen ehunekoa.	Lehen Hezkuntza eta/edo DBH ematen duten ikastetxeen % 100a	Eskola-ordutegiak eta-plangintzak ikastetxeetan, irakurketa-jardueren erregistroa arloka, jakintzagaika edo eremuka.
	Irakurketa praktika egunero sistematizatu duten ikastetxeen ehunekoa.	Lehen Hezkuntza eta/edo DBH ematen duten ikastetxeen % 100a	



4. Ikasleei arreta pertsonalizatua ematea	Irakurtzeko kompetentzian errendimendua hobetzen duten ikasleen ehunekoa, bai barneko ebaluazioetan, bai kanpoko ebaluazioetan.	Hasierako oinarri-lerroarekiko gutxienez % 10eko hazkundea.	Ebaluazio diagnostikoen eta proba estandarizatuen emaitzak (PISA, ITT), aurrerapen-txostenak eta ikasleen banakako jarraipena.
	Errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa murriztea.	Maila baxuko ikasleak % 15a izatea gehienez.	Barne- eta kanpo-ebaluazioetako emaitza konparatiboen txostenak, ebaluazio diagnostikoetatik bereizitako datuak.
	Irakurtzeko kompetentzian maila altuetara iristen diren ikasleen ehunekoa handitzea..	Hasierako oinarri-lerroarekin alderatuta, maila altuetan dauden ikasleen kopurua % 10a handitzea.	
5. Genero-arrakala murriztea	Irakurtzeko kompetentziari dagozkien ebaluazio estandarizatueta mutilen eta nesken arteko puntuazio-desberdintasuna murriztea.	Puntuazio orekatua, generoen artean % 5eko gehieneko aldakuntzarekin.	Generoaren arabera bereizitako ebaluazioen emaitzak, errendimenduen konparazio-txostenak generoaren arabera.
	Neska-mutilen arteko desoreka murriztea irakurketa-jardueretan parte hartzeari dagokionez.	Partaidetza orekatua, generoen arteko % 5eko gehieneko aldakuntzarekin.	Irakurketa-jardueretako parte-hartzearen erregistroa, generoaren eta irakurketa-jardueri buruzko gogobetetze-inkesten arabera.
6. Irakurzaletasuna bultzatzen duten eskolaz kanpoko jarduerak sustatzea	Irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten ikastetxeen ehunekoa.	Ikastetxeen % 100ek irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jarduera bat inplementatzen dute gutxienez.	Ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko jardueren zerrenda. Ikastetxe bakoitzaren IUPn jasotako curriculumetik kanpoko jardueren plangintza, baita urteko memorian jasotako ebaluazioa ere.



	Irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan ikasleen parte-hartzea areagotzea, hala nola irakurketa-klubetan, ikastetxeko liburutegian...	% 25eko igoera ezarpenaren lehen urtearekin alderatuta.	Eskolaz kanpoko jardueretan izandako parte-hartzearen eta parte-hartzearen erregistroak, ikasleen eta familien gogobetetze-inkestak.
7. Familiekin lankidetzak aktiboa	Familiei etxean irakurtzen laguntzarekin lotutako jarduerak eskaintzen dizkieten ikastetxeen ehunekoa	Ikastetxeen % 100ek gutxienez jarduera bat inplementatzen dute familientzat etxean irakurketa lantzearekin lotuta.	Ikastetxeen urteko planak eta memoriak
	Etxean irakurtzearekin lotutako jardueretan familien parte-hartzea handitzea.	Familien % 50eko partaidetza.	Familien eta ikastetxearen arteko bileren aktak, familien parte-hartzeari buruzko txostenak.
	Familiaren eta ikastetxearen arteko informazio-trukea, ikasleek etxean irakurtzean egindako aurrerapenei buruzkoa.	Gutxienez 3 bilera urtean familiekin.	Familiekin egindako bileren aktak eta erregistroak, familiei egindako inkestak etxeko irakurketaren maiztasunari eta kalitateari buruz.

Oharra: Taula honek programaren aurrerapena neurtzeko beharrezkoa den informazioa laburbiltzen du, eta **balio optimoak eta ebidentziak ematen ditu programa amaitzean planteatutako helburu bakoitzean egindako aurrerapenak ebaluatzeko**. Planteatutako balio optimoak berrikusi eta egokitu egingo dira, 2025-2026 ikasturtearen amaieran egingo den tarteko ebaluazioaren arabera.



II. eranskina: Jarduketan eta horien neurrien kronograma.

JARDUKETA	NEURRIA	ARDURADUNA	ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEAK	24-25			25-26		
				1º	2º	3º	1º	2º	3º
1.a Batzorde tekniko bat sortzea	Batzorde teknikoa martxan jartzea	Hezkuntza Sailburuordetza	Berritzegunea, ISEI-IVEI	■					
	Hasierako diagnostikoa prestatzea eta irakurketa hobetzeko lehentasunezko arloak hautatzea	Batzorde teknikoa		■	■				
	Ezarpenaren epe erdiko ebaluazioa eta beharrezko doikuntzak	Batzorde teknikoa						■	
	Bigarren faserako proposamen pedagogikoak prestatzea	Batzorde teknikoa							■
2.a Aholkulari- edo kolaboratzaile-taldeak sortzea	Aholkulariak eta/edo kolaboratzaileak hautatzea	Zuzendaritzak: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza + Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa	Berritzegunea	■					
	Irakurketa-idazketako metodologietan eta irakurtzeko konpetentzia hobetzeko estrategietan aholkularien hasierako prestakuntza	Batzorde teknikoa	Aholkulari-taldeak	■	■				
	Aholkulariak eta ikastetxeak koordinatzea, beharrian espezifikoak identifikatzeko	Batzorde teknikoa	Aholkulari-taldeak eta ikastetxeak					■	■



Hezkuntza-baliabideak prestatzea	Irakasleentzako gida pedagogikoak eta material didaktikoak garatzea	Batzorde teknikoak eta Aholkulari-taldeak	Ikastetxeak		
	Hezkuntza-baliabideak banatzea irakurgunea.eus atarian eta argitaratzea	Batzorde teknikoak eta Aholkulari-taldeak	Ikastetxeak		
	Baliabideak eguneratzea eta berrikustea, ikastetxeen esperientziaren arabera	Batzorde teknikoak eta Aholkulari-taldeak	Ikastetxeak		
4.a Irakurketa-idazketa prozesuaren metodologiei eta euskarri ezberdinetan konpetentzia bidez irakurtzen ikasteko estratēgiei buruzko prestakuntza.	Ikastetxean irakurketa estratēgia inplementatuko duten irakasle eta koordinatzaileei zuzendutako prestakuntzaren plangintza eta diseinua	Batzorde teknikoak eta Aholkulari-taldeak	Irakurketa estratēgiaren ikastetxeko koordinatzailea eta irakasleak		
	Hezkuntza-zentroetan hasierako prestakuntza ezartzea	Aholkulari-taldeak	Irakurketa estratēgiaren ikastetxeko koordinatzailea		
	Irakasleen etengabeko prestakuntza eta jarraipena	Aholkulari-taldeak eta ikastetxeetako irakurketa estratēgiaren koordinatzaileak	Ikastetxeak		
5.a Ikastetxeei haien irakurketa estratēgia garatzen laguntzea.	Laguntza diseinatzea	Batzorde teknikoak	Aholkulari-taldeak		
	Laguntzaren inplementazioa	Aholkulari-taldeak	Irakurketa estratēgiaren ikastetxeko koordinatzailea		



	Ikastetxearen irakurketa strategiaren diseinua, inplementazioa eta jarraipena	Irakurketa strategiaren ikastetxeko koordinatzailea	Ikastetxe guztiak		
	Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE) goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku hartzeko prozedura.	Aholkulari-taldeak	Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	1	1 1
	Irakurketa gaitasunak neurtzeko tresna (ITT)	Aholkulari-taldeak	Lehen Hezkuntzako ikastetxeak		
	e-irakurzaletasuna	Aholkulari-taldeak	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	1	1 1
	Inplementatutako estrategien berrikuspena eta doikuntza, antzemandako beharriaren arabera	Batzorde teknikoa			
6.a Hezkuntza-komplexutasuna duten ikastetxeetan irakurtzeko kompetentzia hobetzeko ekitea	Hezkuntza-komplexutasuna duten ikastetxeentzako neurriak: talde txikiak sortzea eta/edo ko-irakaskuntza ezartzea	Batzorde teknikoa eta Aholkulari-taldeak	HKIaren arabera emandako ordu-kredituak dituzten ikastetxeak	1	1 1
	HBIP esparruan esku hartzeko eta irakurketa indartzeko jarduketak	Batzorde teknikoa eta Aholkulari-taldeak	HBIP duten ikastetxeak	1	1 1
	Eraldatzen programaren esparruan esku hartzeko eta irakurketa indartzeko jarduketak	Eraldatzen programako aholkulariak	Eraldatzen ikastetxeak		

¹ Modu esperimental edo pilotua



7. a. Irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei eskolaz kanpo hezkuntza-laguntza ematea	Irakurtzeko zailtasunak dituzten Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzako hezkuntza-laguntza.			
	- Hobetzeko jarduerak eskolaz kanpo inplementatzeko ikastetxeak hautatzea	Hezkuntza Sailburuordetza	Hautatutako ikastetxeak	1
	- Errefortzuak egiteko irakasleek prestakuntza	Batzorde teknikoa		1
	- Errefortzua inplementatzea	Errefortzurako irakasleak		1 1
	- Ebaluazioa eta hurrengo ikasturterako doikuntzak	Batzorde teknikoa		
	Errefortzua (Bidelaguna programa):			
	Ikastetxeekin koordinatzea, Bidelaguna programak irakurtzeko konpetentzia hobetzeko egokitzeko	Aholkulari-taldea		
	Hobetzeko neurriak inplementatzea	Bidelaguna programaren hezkuntza-langileak	Bidelaguna ikastetxeak	1 1
	Bidelagunaren irakurketa-jardueren inpaktua ebaluatzea eta proiektuaren hobekuntzak	Batzorde teknikoa		
	DBHko ikasleen hezkuntza-errefortzua eta irakurketa sustatzea (Hedatze Programa):			
Ikastetxeekin koordinatzea, Hedatze programak irakurtzeko konpetentzia hobetzeko egokitzeko	Batzorde teknikoa			



Hedatze programetan irakurmena hobetzeko neurriak inplementatzea	Hedatze ikastetxeetako irakasleak	1	1		
Hedatzen irakurketa-jardueren inpaktua ebaluatzea eta proiektuaren hobekuntzak	Batzorde teknikoa				

Oharra: Irakurtzeko konpetentzia indartzeko programaren 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetarako jarduketa eta neurrien plangintza egiteko lehenengo hurbilketa da kronograma hau. Berrikusi eta aldatu ahal izango da, programa ikastetxeetan inplementatzen den heinean identifikatzen diren beharrian eta berezitasunen arabera. Gainera, jarduketa eta neurri berriak gehitu ahal izango dira, edo daudenak doitu, emaitzak ebaluatu eta prozesuan zehar hobetzeko aukerak identifikatu ahala.

[↑Aurkibidea](#)



III. eranskina: Programaren helburuen, jarduketan eta adierazleen arteko lotura

JARDUKETA	ADIERAZLEA	BALIO OPTIMOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK							
			1	2	3	4	5	6	7	
1. Batzorde tekniko bat sortzea.	- Hasierako diagnostiko-txostena, hobekuntza-arloekin batera.	→ Egindako txostena eta, gutxienez, identifikatutako bost hobekuntza-arlo								
	- Jarraipen-txostenen maiztasuna	→ Sei hilean behin								
	- Proposamen pedagogikoak diseinatzea	→ Programaren eraginpeko hezkuntza-maila guztietarako proposamen pedagogikoak diseinatu dira.								
	- Prestakuntza-planak garatzea eta koordinatzea	→ Programan definitutako prestakuntza-planen % 100a diseinatu da.								
	- Hezkuntza-baliabideak sortzen laguntzea.	→ Sortutako eta/edo "kuratutako" baliabide guztiak irakurgunean argitaratu dira.								
	- Ebaluazio jarraia egiteko sistema implementatua	→ Programaren etengabeko ebaluazioaren urteko txostena egin da.								
2. Aholkularien edo laguntzaileen taldeak sortzea.	- Batzorde teknikoak eta jarraipen-taldeak artatutako ikastetxeen kopurua	→ Programaren neurri bakoitzerako hautatutako ikastetxeen % 100ek talde arduradunen etengabeko aholkularitza eta laguntza jasotzen dute.								
	- Definitutako metodologietan gaitutako aholkularien ehunekoa	→ Aholkularitza-talde gaituaren % 100a								
	- Aholkularitza-taldeak sortutako edo "kuratutako" baliabideen kopurua	→ 15 hezkuntza-baliabide edo gehiago urteko								



	- Ikastetxeen artean antolatutako topaketen edo tailerren kopurua	→ Urteko 2 topaketa edo gehiago							
	- Aholkularitza-taldeek identifikatu eta dokumentatutako eta ikastetxeen artean saio formalen edo argitalpenen bidez partekatutako jardunbide egokien kopurua	→ Gutxienez 5 jardunbide egoki, urtero dokumentatuak eta partekatuak, ikastetxeen arteko topaketen, plataforma digitalen edo argitalpenen bidez.							
	- Sortutako lankidetzeta-sareetan edo praktiketako komunitateetan edo lehendik dauden sareetan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoa.	→ Ikastetxeen % 50ek, gutxienez, ikastetxeen arteko lankidetzeta-sareetan parte hartzen du.							
3. Hezkuntza-baliabideak prestatzea.	- Irakurgunea plataformako baliabideen deskargen hazkundea.	→ urteko % 20ko hazkundea deskargetan							
	- Hezkuntza-komunitatearen gogobetetze-adierazlea hezkuntza-baliabideekin	→ Inkestatuena % 80k (irakasleek, ikasleek eta familiek) egokitzat edo oso egokitzat jotzen dituzte baliabideak (hau da, 1etik 5era bitarteko eskalan 4 edo 5 puntu lortu dituzte).							
4. Irakurketa- eta idazketa-prozesuaren metodologiei buruzko prestakuntza, eta hainbat euskarritan irakurtzeko	- Hasierako eta etengabeko prestakuntza osatu duten irakasleen portzentajea	→ Parte-hartzaileen % 80a							
	- Irakasleek jasotako prestakuntzarekiko duten gogobetetze-adierazlea	→ Irakasleen % 70ek jasotako prestakuntza "gogobetegarri" edo "oso gogobetegarri" gisa ebaluatzen du (4tik 5era bitarteko puntuazioak 1. 5 eskalan), edukien kalitateari, aplikagarritasunari eta							



konpetentziak ikasteko estrategiak.		ikasleen irakurmena hobetzeko erabilgarritasunari dagokienez, besteak beste.							
	- Autoebaluazio-inkestetan, jasotako prestakuntzaren ondoren, ikasgelan praktika pedagogiko berriak aplikatu dituztela adierazten duten irakasleen ehunekoa	→ irakasleen % 70a							
5. Ikastetxeei beren irakurketa-estrategia garatzen laguntzea.	- Irakurketa-estrategia ikastetxe bakoitzean ezartzeari buruzko urteko txostena	→ ikastetxeen % 100ek inplementazioaren berri ematen dute							
	- Irakurketa-egutegi sistematizatua ezarri duten ikastetxeen ehunekoa, jarduera espezifikokoak eta errepikariak astean	→ Ikastetxeen % 85ek, gutxienez, asteko irakurketa-egutegia ezarri du. Egutegi horrek maiztasuna (jarduera kopurua asteko), jarduera mota eta irakurtzeko ezarritako ordutegiak zehazten ditu.							
	- Eskola-liburutegia eskola-jardueretan eta irakurketaren laguntzan modu egituratu eta integratuan erabiltzen duten ikastetxeen ehunekoa.	→ Ikastetxeen % 75ek, gutxienez, liburutegiaren erabilera egituratua ezartzen dute, eta, besteak beste, honako ekintza hauek gauzatzen dituzte: ikasleek aldi behin bisitak egiteko plan formala (adibidez, astean behin bisita bat egitea), liburutegian irakurketa-edo ikerketa-jarduerak egitea, eta ikasleek eta irakasleek liburuak eta bestelako baliabideak aldizka mailegatzea.							
	- Sei hilean behin, irakurketarekin lotutako eskola-jardueretan eta eskolaz kanpoko	→ Mutilek eta neskek irakurketarekin lotutako eskola-jardueretan eta eskolaz kanpoko jardueretan duten parte-hartzea ez da % 5etik gorakoa.							



	ikastetxeen ehunekoa eta ikasleek jarduera horietan duten parte-hartzearen ehunekoa..	kanpoko jarduera bat eskaintzen dute gutxienez hiru hilean behin. → Ikasleen % 80k, gutxienez, irakurketarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueraren batean parte hartzen du ikasturtean zehar..							
	- Etxean irakurketa indartzera bideratutako familientzat eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten Hezkuntza Konplexutasunaren Indize (ICE) handiko ikastetxeen ehunekoa eta jarduera horietan familiak duen parte-hartzearen ehunekoa.	→ Hezkuntza Konplexutasun Indize handia duten ikastetxeen % 100ek gutxienez eskolaz kanpoko jarduera bat eskaintzen dute familientzat, etxean irakurketa indartzeko. → Familien % 50ek, gutxienez, etxean irakurketa indartzeko eskolaz kanpoko jardueraren batean parte hartzen du.							
	- Irakurketa kompetentzia indartzeko jarduerak egiteko ordu-kreditu gehigarriaren zati bat (KHiri lotua) bideratzen duten ikastetxeen ehunekoa	→ Ikastetxeen % 100ek beren ordu-kreditu gehigarriaren zati bat irakurketa indartzeko jardueretarako erabiltzen dute.							
	- PREEN eta Eraldatzen proiektuan parte hartzen duten eta irakurzaletasuna indartzeko neurriak diseinatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa	→ PREE eta Eraldatzen programetan parte hartzen duten ikastetxeen % 100a							
Eskola-orduetatik kanpo irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako	NEURRI GUZTIETARAKO ADIERAZLE KOMUNAK								



hezkuntza-laguntzako neurriak.	- Errefortzu-neurrira erregularki joaten diren ikasleen ehunekoa (saioen % 80ra gutxienez bertaratzea)	→ % 90ko parte-hartze erregularra						
	- Ikasleek irakurketa konpetentzian izandako hobekuntza edo bilakaera, eskolaz kanpoko errefortzu-jardueretan parte hartzearen ondorioz.	→ Parte-hartze erregularra duten ikaslegoaren % 85a						
	- Irakasleek eta familiek jarduera honetako neurriekiko duten gogobetetze-maila	→ Inkestaturen % 80k (irakasleek zein familiek) egokitzen edo oso egokitzen jotzen du neurria (hau da, 1etik 5era bitarteko eskalan 4 edo 5 puntu lortu dituzte).						
	LH-KO 3. MAILAKO IKASLEENTZAKO INDARTZE-NEURRIAREN ADIERAZLE ESPEZIFIKOA - Irakurketan zailtasunak dituzten Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza ematen dieten ikastetxeen kopurua	→ Hezkuntza Sailak aukeratutako ikastetxeen % 100a						
	BIDELAGUAN: ADIERAZLE ESPEZIFIKOA - Irakurketa Estrategiarekin bat datorren Bidelaguna programa ezarri duten ikastetxeen kopurua	→ Bidelaguna ikastetxeen % 100a lerrokatuta						



	HEDATZE: ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK - Hedatze proiektuan irakurtzeko kompetentzia indartzeko jarduerak ezarri dituzten ikastetxeen ehunekoa	→ Hedatze ikastetxeen % 100a.								
	- DBHn irakurtzeko ohitura sustatzeko jardueren kopurua Hedatze ikastetxeetan	→ Gutxienez hiru hilean behin 3 jarduera ikastetxe bakoitzeko								
	- Irakurtzeko ohitura handitzea, ikasleen gogobetetze-inkesten bidez neurtuta	→ Parte hartu duten ikasleen % 20k, gutxienez, puntu 1 egin du gora inkestetan erabilitako 5 puntuko eskalan.								

OHARRA: eranskin honek programaren lehen faseko jarduerak antolatzen ditu, helburu espezifikoei dagokienez. Azken emaitzetan eta jarraipen-adierazleetan oinarritzen dira, inplementazioan zehar aurrerapena monitorizatzeko. Tresna malgua eta dinamikoa da, eta programaren garapenak aurrera egin ahala osatuko eta doitu da, eta ikastetxeen emaitzei eta beharrei buruzko informazio gehiago bilduko da. Datu berriak lortu ahala, jarraipen-adierazleak eguneratu egingo dira, aurrerapenaren ebaluazio jarraitua eta eraginkorra ziurtatzeko. Horrela, programak bere helburuekin bat egingo duela eta sortzen diren erronkei behar bezala erantzungo diela bermatuko da.

[↑Aurkibidea](#)



IV. Eranskina: Glosarioa

DESKODETZEA. Idatzizko hitzak ahozko hizkuntzaren soinetan itzultzeko trebetasuna.

IKASTEKO IRAKURRI. Irakurketa ikasteko tresna da, eta berariazko ezagutzak, trebetasunak eta estrategiak eskatzen ditu

IKASTETXEAREN IRAKURKETA ESTRATEGIA. Dokumentu erraza eta eraginkorra da; irakasleek eta hezkuntza-komunitate osoak irakurketaren inguruan hartu dituzten erabaki guztiak jasotzen dituena, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin bat datorrena, eta Ikastetxeko Urteko Planean islatuko dena.

INTONAZIOA. Testu bat ahoskatzeko erabiltzen den ahotsaren tonuaren aldaketa da. Irakurketan intonazioa funtsezkoa da, hori gabe esaldiei ezin zaie zentzu egokia eman; hori gabe ez dago adierazpenik.

IRAKURKETA ERAGINKORRA. Lan-teknika intelektualak erabiltzen dira, irakurketan eragin zuzenena duten gaitasunak bereziki sustatzeko eta garatzeko: arreta, ulermena, intuizioa, abiadura, ikusmen trebetasuna, memoria, aurrea hartzea, etab.

IRAKURKETAREN ZUZENTASUNA irakurtzean ematen den zehaztasuna da; testuan dauden hitzak zuzen identifikatzeari dagokio.

IRAKURMENA. Irakurtzen dena ulertzeko gaitasuna da, bai testu bat osatzen duten hitzen esanahiari dagokionez, bai testuaren beraren ulermen orokorrari dagokionez.

IRAKURTZEKO ABIADURA. Irakurketa-abiadura pertsona batek irakurketa natural batean minutuko irakurtzea lortzen duen hitz kopuruari dagokio, testu baten edukia ulertzeko asmoz. Hori aldatu egiten da ozen edo isilik egiten bada.

IRAKURTZEKO JARIOTASUNA. Zuzentasunez, abiaduraz eta adierazkortasunez irakurtzeko gaitasuna da. Jariotasunak letren ezagutzaren eta ezagutza fonemikoaren nagusitasuna islatzen du, eta ulermena errazten du. Irakurketaren praktikaren bidez garatzen da eta testuak ondo ulertzeko funtsezko trebetasuna da.

IRAKURTZEKO KONPETENTZIA. Bizitzan sortzen diren premien aurrean, irakurtzeko trebetasunak modu baliagarrian erabiltzeko gaitasuna da.

IRAKURTZEKO OHITURA. Aldian-aldean irakurtzeko ohitura da. Irakurtzen ikasteak edota ikasteko irakurtzeak ez du berez irakur-ohiturarik sortzen; ordea, irakurtzeko ohiturak, irakurtzen ikastea hobetzen du eta ikasteko irakurtzea erraztu egiten du.

IRAKURTZEN IKASI. Irakurtzeko gaitasuna garatzea da, irakurketaren oinarrizko trebetasun funtzionalak lortzea.



IRAKURZALETASUNA. Motibazio intrinsekoagatik edota gozamen hutsagatik irakurtzen denean ematen da, finean, irakurtzea gustuko denean. Irakurketa ludikoa eta ikasteko irakurketa batzearen ondorioz, emaitza akademiko hobeak lortzen dira.

IZENDAPEN-ABIADURA. Estimulu oso ezagun batzuk behar bezala izendatzeko azkartasuna da: koloreak, zenbakiak, zuhaitz bat edo txakur bat bezalako irudi oso ezagunak, edo letrak berak, letrak ondo ezagutzen badira.

KODOZENTZIA. Estrategia pedagogiko honetan oinarrituta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bi irakaslek edo gehiago une eta ikasgela berean elkarlanean aritzen dira. Praktika horren bidez ikasleen beharrak kontuan hartzen dira, arreta pertsonalizatua eta berariazko laguntza jasotzen dutelarik.

KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA. Trebetasun metalinguistikoa da, eta aukera ematen du esaldi bat osatzen duten hitzak zein hitz bat osatzen duten silabak eta fonemak entzuteko, bereizteko eta manipulatzeko. Unitate fonologikoen arabera hiru mota bereizten dira: kontzientzia lexikoa, kontzientzia silabikoa eta kontzientzia fonemikoa.

KONTZIENTZIA LEXIKOA. Esaldia osatzen duten hitzak identifikatzeko eta nahita manipulatzeko trebetasuna da.

KONTZIENTZIA SILABIKOA. Hitz osatzen duten silabak hitz batean ezagutzeko eta manipulatzeko trebetasuna da.

KONTZIENTZIA FONEMIKOA. Fonemak — hitzak osatzeko konbinatzen diren soinuen unitate txikiak — entzuteko, identifikatzeko eta manipulatzeko trebetasuna da.

PUNTUAZIO-MARKAK. Testu bat egituratzeko erabiltzen diren seinale edo marka grafikoak dira, eta, aldi berean, irakurleari intonazio-modua eta hura ulertzea errazten duten beharrezko etenaldiak identifikatzeko aukera ematen diote.

ULERMEN ESTRATEGIAK. Testu batean deskribatutako kontzeptuen ulermena hobetzeko entrenamendu-prozesuak dira. Prozedura konplexua dirudien arren, barnerratzeko oso prozesu errazak dira, edukiak ulertzeko akatsak zuzentzea ahalbidetzen dutenak.